

## III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

## EUSKO JAURLARITZA

## EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

## Industria Administrazioaren Arabako lurralde- Ordezkaritza

**Jendaurrean jartzen baita honako proiektu honi buruzko informazio publikoa: Gamarra-Altsasua 1-2 30 kV DC-ko aireko linea, Alegria-Dulantziko, Aguraingo eta Iruraiz-Gaunako udal-mugarteetan (Araba) dauden 30 kV SC-ko Gamarra-Altsasua 1, 285. eta 307. euskarrien artean dagoena, eta Gamarra-Altsasua 2, 162. eta 307. euskarrien artean dagoena, desmuntatuko direlako**

Martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuak 10. artikuluan (2020ko apirilaren 24ko EHAA) eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuak 144. artikuluan (2000ko abenduaren 27ko BOE) ezartzen dituzten ondorioetarako, eta testuaren azken xedapenetako lehenengoan, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko 1957ko apirilaren 26ko Legearen Erregelamenduaren 17. artikuluan eta Sektore Elektriakoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 55. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, jendaurrean jartzen da jarduketa hau, baita eskatzaileak nahitaez desjabetzekotzat jotzen dituen ondasunen eta eskubideen zerrenda zehatza eta banakoa ere.

Eskatzailea: I-DE Redes Eléctricas Inteligentes, SAU, helbidea Urarte kalea 2 helbidean duena (Vitoria-Gasteiz).

Eskaera: aurretiazko administrazio- eta eraikuntza-baimena, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua eta onura publikoaren deklarazioa.

Helburua: inguruko energia elektrikoaren horniduraren kalitatea hobetzea.

Erreferentzia: 01ATY 202200001.

Gamarra-Altsasua 1-2 30 kV DC-ko aireko linea, 30 kV SC-ko Gamarra-Altsasua 1, 285. eta 307. euskarrien artean dagoena, eta Gamarra-Altsasua 2, 162. eta 307. euskarrien artean dagoena, desmuntatuko direlako.

Linearen ibilbidea: Alegria-Dulantziko, Aguraingo eta Iruraiz-Gaunako udal-mugarteak (Araba).

Proiektuak ukitzen dituen ondasunak eta eskubideak: iragarki honen eranskinean zehaztutakoak.

Aurrekontua: 329.676,69 euro.

Horren berri ematen da, guztiek jakin dezaten, eta batez ere lurren jabeek eta proiektuak ukitzen dituen gainerako titularrek jakin dezaten; horien zerrenda iragarkiaren amaieran agertzen da. Proiektua aztertu ahal izango da Industria Administrazioaren Arabako Lurralde Ordezkaritzan (Samaniego kalea 2, Vitoria-Gasteiz), dagokion udalean edo Interneteko [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean (Energia eta meategiak/Energia ataleko proiektuen jendaurreko informazioan: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/energia-meategiak/hasiera/>).

Horrez gain, interesdunek egokitzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte aipatu zentroetan, bi aletan, hoguei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 23a

*Industria Administrazioaren Arabako lurralde-ordezkaria*  
**JESÚS PASCUAL LORENTE**

## ERANSKINA

## UKITUTAKO ONDASUNEN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA

«GAMARRA-ALTSASUA 1-2» 30 KV DC-ko aireko linea, Alegria-Dulantziko, Aguraingo eta Iruraiz-Gaunako Udal-mugarteetan (Araba) dauden 30 KV SC-ko «GAMARRA-ALTSASUA 1», 285. eta 307. euskarrien artean dagoena, eta «GAMARRA-ALTSASUA 2», 162. eta 307. euskarrien artean dagoena, desmuntatuko direlako

UDALERRIA	Zk	JABEAREN DATUAK		DATU KATASTRALAK			AFEKZIOAK					ZUHAIZTIA	
		Jabea	Poligonoa	Lurzatia	Izaera - laborea	Euskarri Zk.	Euskarri azalera (m <sup>2</sup> )	Linearen Luzera (m)	Aireko zortasunaren azalera (m <sup>2</sup> )	Aldi baterako okupazioa (m <sup>2</sup> )	Segurtasun azalera (m <sup>2</sup> )	Mozketa azalera (m <sup>2</sup> )	
Iruraiz-Gauna	24	J.Ramon Oleaga Latierro	1	961	Landatarra	10(1/2)	1.051	17	72	25,00	277	0	
Iruraiz-Gauna	58	Prius Residencial S.L.	1	889	Landatarra	19	2,1	73	358	50,00	1.150	0	